

# KarKara

*Pat & Utter*

30. ZENBAKIA

ORIOKO ALDIZKARIA

1994KO APIRILA

*Elkarriketa*  
Iñake Irastorza eta  
Marije Gurrutxaga

*Erreportajea*

## Danimarkako bidaiia

# Txiste eta asmakizunak

## ASMAKIZUNAK:

✓ Artzai bat bere ardiak zaintzen ari zen eta paseatzen zebilen gizon batek horrela esan zion artzaiari:

Arratsaldeon ehun ardi dituzun artzai!

Eta artzaiak honela erantzun zion:

Hemen dauzkadanak, gehi beste hainbeste, gehi ditudan ardien erdiak ehun osatzen dute.

Zenbat ardi zeuzkan?

✓ Etzanik dago.

Jaikiko balitz zerua joko luke eskuak baleuzka, lapurrak harrapatu,

hitz egiten baleki, guztia esan.

Zer da?

✓ Ikusten dut, ondoan dut

eta ezin dut harrapatu

Zer da?

*(Erantzunak, hurrengo alean)*

*Aurreko aleko erantzunak: - 301 arrautz*

*- Errepuestoko errueda*

## TXISTEA:

Gu bezelako jubilatut batek bazkal ondoan eguneroko babes lekura joateko ohitura zeukan. Arratsaldean musean pasatzen zuen. Garizumako larunbat batean, bapatean Paskoakoa egin behar duela gogoratzen zaio eta musean jardun ondoren konfesatzeraz joaten da.

Joan da elizara eta apaizarengana hurbilduta esaten dio:

- Ave Maria Purisima.

- Sin pecado concebida. Zenbat denbora da azkenengo aldiz izan zinenetik?

- Bi urte.

- Esan behar didazu zenbat diren Jaungoikoaren Aginduak.

Eta gizona zer esan jakin gabe isilik geratzen da apaizari begira, eta halako batean esaten du:

- Sei dira.

Eta apaizak goxo-goxo erantzuten dio:

- Lau gehiago

Eta gizonak segituan:

- Ordago!

*Asko eskertuko genizueke zuen txisteak, ipuinak edota asmakizunak bidaliko bazenigute, sail honekin jarraitu ahal izateko.*



**Gure  
herriko  
garagardoa**

**Eugenio  
Garmendia**

KONTSEILARITZA

Tfnoa: 83 44 66

**AXUN**

**JANARIAK**

Telefonoa: 83 59 02



**IPARRAGIRRE**

**AUTOZERBITZUA**

Oa kalea,5 Tfnoa: 83 17 15

# KarKara

Herriko Plaza, 1  
20810 ORIO  
Tel. 83 15 27

Lege-gordailua  
SS 346/90

ISSN  
1132-1105

Tirada  
800 ale

## Erredakzio-taldea

Marisa Arruabarrena  
Manu Etxeberria  
Miren Etxeberria  
Ana G. de Txabarri  
Ana Iturain  
Iñaki Iturain  
Nere Manterola  
Idoia San Sebastian  
Jabier Zabaleta

## Publizitate-arduradunak

Miren Etxeberria  
Ana Iturain

## Kolaboratzaileak

Rafa G. de Txabarri  
Patxi Oliden  
Gabi Gurrutxaga  
Maria Luisa Urbieta

## Azken orrialdeko marrazkia

Daniel Bastos

## Argazkiak

Ana G. de Txabarri  
Maite Garcia

## Inprimategia

Bizker (Usurbil)

- 4 Gutunak  
5 Herrian galdezka  
*Gaua edo eguna?*  
6 Herriko kontuak  
10 Kirolak  
14 Erreportajea  
*Danimarkako bidaia*  
17 Iritzia  
*"Sarobe" gogorarazi dit Bartzelonako suteak*  
*Gabi Gurrutxaga*  
18 Elkarrizketa  
*Iñake Irastorza eta Marije Gurrutxaga antzerkiaz maiteminduta*  
20 Denetik piska bat  
25 Kolaborazioa  
*Zaharren egoitzak: beharrezko baliabidea*  
26 Azkena

## 1994ko publizitate-prezioak

Modulo bat .....	1.500 PTA
Bi modulo .....	3.000 PTA
Hiru modulo .....	4.500 PTA
Lau modulo .....	6.000 PTA
Sei modulo .....	9.000 PTA
Orrialde erdia .....	13.500 PTA
Orrialde osoa .....	27.000 PTA

☞ Prezio hauek zenbaki baterako balio dute. Urtean hamar zenbaki argitaratuko ditugunez, zenbaki guztietan beren publizitatea egin nahi dutenek % 10eko deskontua izango dute prezio hauen gainean.



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak  
diruz lagundutako aldizkaria



Gipuzkoako Diputazioak  
diruz lagundutako aldizkaria

## Eratorik ez erantzunik gabe!

Martxoaren hasieran, Orion izan zen eraso berri bat salatzen geroz, dagoeneko denok edo gehienok dakigu eraso sexual ahalegin bati buruz ari garela.

Ezin dugu inolaz ere gertaera hau ixildu eta are gutxiago, gure ixiltasunarekin horrelako jokabideak habestu.

Bestalde, penagarria eta lotsagarria iruditzen zaigu, gizarte honek horrelako gertaeren aurrean duen jokabide zabarra eta axolagabea. Ezin dugu ahaztu ez dela gertatzen den lehen aldia, urte gutxitan zoritxarrez, Orion izan ditugu beste hainbat kasu; horregatik guun honen bitartez salatu nahi dugu eraso ahalegin honen egilea izan den "tipoa", hau da, Jose M. ARRONDO; eta beraien ixiltasunarekin eta babesarekin horrelako ekintza egin duen pertsona onartzen duten guztiak.

Salaketa honekin batera bi gauza garbi laga nahi ditugu:

1.- Emakumeok, gizarte honen barruan eta egoera desberdinetan lasai ibiltzeko eta bildurrik gabe bizitzeko eskubidea aldarrikatzen dugu.

2.- Horrelako erasoek beti gure erantzuna jasoko dutela.

**ERASOEN AURREAN ERANTZUN EMAKUME!!!**

**ERASOTZAILEAK SALATU!!!  
ERASORIK EZ ERANTZUNIK  
GABE!!!**

ORIOKO EMAKUME TALDEA

## Argibide bat Orioko futbol taldearen sorreraz

Otsaileko KARKARAN, futbol taldeko presidente dan Pedro Fernandezi egindako elkarrizketan akats bat zegoen informazioaren aldetik.

O.F.T. 1978 ko abuztuan sortu zan Loretzu tabernan egindako bilera batean, Beraz, aurtengo abuztuan 16 urte betetko ditu eta ez 12, elkarrizketan esaten zan bezela.

Lehenbiziko batzordea honako hau izan zan;

Presidente: Jose Irure Katarain

Presidente-orde: Jose Antonio

Urkizu Aduriz

Idazkari: Alejandro Ortega

Aizpurua

Diruzain: Luis Azkue Aldaz

Bokala: Juan Luis Maritxalar

Intxauspe

Entrenatzaileak: Jose Antonio

Atorrasagasti Murua eta Jose Migel San Sebastian Murua

Esandako guzti hau idatzita dago

Futbol-Taldearen akta-libiuruan.

Begirunez

## Ikusi makusi... ez al duzu ikusi?

Hirugarren munduko kalea dirudi, Eroski, Spar eta inguruko denda guztietara pasa behar duten kamioiak hortik pasatzen dira.

Ikastolako ume eta guraso mordoeak kontu handiz zeharkatzen dute.

Anbulatoriora joateko ere arriskuan jartzen duzu bizitza.

Eta hanka hautsiko bazenu hango zulo batean erorita, nork emango lizuke erantzuna? Zein kale? Noren ardura?

Ikusi makusi... ez al duzu ikusi?

PAT COWIE



FUTBOLZALE BAT

ordenadorea eta  
inpresora salgai

Hasi berrientzat.

Disko gogorrik gabekoa

50.000 pta

Tfnoa: 83 50 34 (Marru)

**ARGI-GAIK**

elektrizitatea

argi halogenoak

**RAMIRO**

ARGAZKIAK

☎ 83 10 48

HARAGIA GUSTORA JAN NAHI  
BADUZU EROS EZAZU...

**Kepa Loidi**

harategia urdaitegian

Pelotari 1, Tfnoa: 83 25 65

Autoak aukera  
onean

**AIA ORIO**

Telefonoa: 13 04 38

# Gaua edo eguna?

*Jendearen artean ohitura ezberdinak nabarmen daitezke. Batzuei gaua gustatzen zaie, besteei berriz eguna. Gautxoriak gazteak izan ohi dira normalean, goiztiarrak berriz, zaharragoak... oraingo honetan behintzat hori bete egiten da...*



UNAI GOIKOETXEA  
18 urte

Gehien gustatzen zaidana larunbat gaua da, parranda egiteko eta buelta bat emateko. Ostirala gustatzen zait egun guztietatik gehiena, asteburua hasten dalako.



KRISTINA MIERA  
21 urte

Gaua gustatzen zait eguna baino gehiago, gauetan lagunekin biltzen naizelako. Asteko egunak, ostirala lagunekin biltzen naizelako eta astelehena berriz, lanean nere egun libre dalako.

MILAGROS MAKAZAGA  
40 urte

Egunak bizi gehiago du, politagoa da. Gehien gustatzen zaidan eguna igandea da, lasaia da, familia bildu, eguraldia ederra bada pasiatzeko, bai, igandea da egunik politena neretzako.



J.I. ATORRASAGASTI  
32 urte

Nik gaua nahiago det eguna baino, oraindik gaztea naiz eta. Eguna umekin pasiatzeko eta gaua juerga egiteko. %60 gaua eta %40 eguna. Larunbata gustatzen zait gehien, nahiz eta lan egin.



**Bertan egindako  
opil eta ogiak**



**LIZASO**

**ERLOJU eta  
BITXI DENDA**

Fala, 3

Tfnoa: 83 10 90

**K2**

*76 SELATO*

Etxeko helatuak  
eta kruasanak

San Nikolasa 17 TFNOA 131747

**URANGA  
BURDINDEGIA**

EUSKO GUDARI 7  
TFNOA 831236

## Hondartzatik Kukuarrirainoko bidea berritzen ari dira

Hondartzatik hasi eta Itsaspetik barrena Kukuarriraino iritsiko den bidearen berritze-lanak hasiak dira dagoeneko.

Bidea garbitu ondoren metro bura zabalduko dute bi alboetatik. Zabalera hau aprobetxatuz, zuhaitzak landatu eta miradoreak jarriko dituzte bidean zehar.

## I. Jorge Oteiza ipuin lehiaketa

Ikastolen Elkarteak antolatutako lehiaketan parte hartu nahi dutenek, pilota jokorearen inguruko edozein gai buruz idatzi behar dute.

Lehiaketa hiru ataletan eratu da:

Gaztetxoaren saila, 14 urtez azpikoentzat.

Gazteen saila, 14 urteik 18 urte artekoentzat.

Helduen saila, 18 urteik gorakoentzat.

Lanak, maiatzaren 15a baino lehen aurkeztu behar dira. Gipuzkoako Ikastolen Elkartearen.



## Xabier Sukia txapeldun

Xabierrek txapela jantzi zuen I Bilintx bertsolari txapelketan, martxoaren 27an, Hemezortzi urte baino gazteagoentzako txapelketan 20 bertsolari parte hartu zuten. Finalera 5 neska eta 3 mutil iritsi ziren, 4 bizkaitar, 3 gipuzkoar eta lapurtar bat.

Txapela jantzita, agurtzeko bertsoan Manuel Lasartez gogoratu zen erakutsi dion guztiagatik eta Ibai Esoain bere adiskideaz. Hona, bertsoa osatzeko lau oinak emanda egindakoa: Hara Euskal Herriaz dakidan guztia, Orion goxo-goxo dago eguzkia eta barramuturra olatuz bustia Orio baino gehio ez da Donostia.

## Eskolaumeentzako VII. literatur eta marrazki lehiaketa

Udalak antolatutako lehiaketan parte hartu ahal izateko hauek dira bete beharreko baldintzak.

Literatur lehiaketari dagokionez, lanak euskaraz eta jatorrizkoak izan behar dute.

Partaide bakoitzak lan bat baino gehiago aurkez dezake, baina ezin dezake modalitate batean sari bat baino gehiago jaso.

Bi modalitate izango dira, ipuina eta olerkia, eta luzera librekoa izango da.

Saria, lanik onenak liburuskara batean argitaratzen izango da eta argitaratzen diren lanen egileei liburu-lote bana emango zaie.

Lanak, Ikastetxeko Zuzendaritzan edo Udaleko Euskara Zerbitzuan aurkeztu behar dira, maiatzaren 13a baino lehen.

Marrazki lehiaketari dagokionez, baldintza berberak dira. Baina, haur batek ezin du hiru marrazki baino gehiago aurkeztu.

Marrazkiak aurkezteko modurik egokiena, folio baten tamainakoak dira. Hala ere, beste neurritakoak onartuko dira.

# KOLON TXIKI

Herriko plaza, 4

☎ 83 00 44 13 20 26

# ertza

USAINDEGIA  
Telefona: 83 09 29

## Kaixo Edaritegia

Ogitartekoak  
eta pintxo bereziak

Tfnoa: 13 07 73

## LAIARI

izozkiak

Eusko Gudari, 42 Telefonoz: 13 42 64

# Shock!

ILEA PAINDEGIA  
ESTETIKA

Oa. 1 ☎ 13 22 77 ORIO

## Salatxo abesbatzaren lehen emanaldia Ostiral Santuan

Orioko Salatxo abesbatzak lehen agerpen publikoa egingo du Ostiral Santu honetan. Arratsaldeko bost erdietako meza kantatuko du berriko koru berriak jendearen aurrean lehen aldiz. Mozarten "Ave Verum" eta Zaragozanoren "Hil da Jesus matia" abestuko dituzte.

Igandean, apirilak 3, bigarren emanaldia eskeiniko du goizeko hamart erdietako Meza Nagusia.

## Aste Santuko elizkizunak

**Martxoaren 31n, Ostegun Santua:**

Goizeko 8etatik 10etara, banakako aitortzak. Arratsaldeko 6etan, Meza, 7etan, Meza Nagusia eta 9etan, Ordu Santua.

**Apirilaren 1ean, Ostiral Santua:**

Goizeko 5etan, Gurutz-Bidea San Martinera, 10etan, Gurutz-Bidea guzteleraz, 11etan Gurutz-Bidea euskaraz. Arratsaldeko 5,30 etan, Jaunaren Nekaldi ospakizuna.

**Apirilaren 2an, Larunbat Santua:**

Gauko 9,30etan Pazko Bijilla.

**Apirilaren 3an, Pazko Igandea:**

10,30etan Meza Nagusia.



## 263 lagun bildu ziren jubilatuen bazkarian

Martxoaren 24an Altxerri jatetxean izandako bazkarian 263 jubilatutako bildu ziren beren eguna ospatzeko. Egunari hasiera emateko, goizeko hamaiketan meza entzun zuten eta gero Altxerri aldera abiatu ziren.

Hau izan zuten menua: Entremesak, hotzak eta beroak, legatza frijitua, redondoa saltsan eta postreerako, tarta eta helatua. Ondoren, kafea eta kopa. Menuaren prezioa 1.000 pezeta izan zen.

Han egondakoek eguna oso ondo pasa zuten, giroa ezin hobea tokatu zitzaielako eta lagunekin kontu kontari jarduteko aukera aproposa izan zutelako.

Bazkari honekin batera eta urtero bezala udaberri partean, hasiera emango zaie eskursioei. Lehenengo irteera Gares-era (Puente La Reina) izango da apirilaren 14an. Egun horretan Lizarra ere (Estella) bisitatuko dute, eta hamaiketako bertan egingo dute.

Argazkian azaltzen direnak beheko komedorean zeudenak dira, baina beste jangela bat ere bete zuten han izandakoek.

**ERRUSTA**  
**taberna**

*Kriston bokadillok!!*

*Koasta*  
*Taberna*

*Lasaitasuna*  
*eta*  
*giro ona*

**Igor Manterola**  
**"Bull" en omenezko**  
**jaialdia.**

Apirilaren 16an "Bull" en omenezko jaialdia izango da frontoian gaueko hamarretan hasita.

Hasiera, "Gerla beti" txaluparta taldeak emango du. Ondoren, bertsolari hauek izango dira: Juan Mari Lopez, Xabier Xilbeira, Xabier Sukia eta Ibai Esovain, 10,45etan, Gozategi anai-arrebak eta Maixa eta Itziar trikitilarien emanaldia, Bukatzeko, 11,30etan. Anje Duhalde, Lin Ton Taun eta Su ta Gar -en kontzertua.

**Dantzari gazteak**  
**apirilaren 17an**

Apirilaren 17an, igandea, dantzarien eskola arteko XXIII. Jaialdiaren bigarren kanporaketa izango da Orion. Euskal Dantzarien Biltzarrak urtero antolatzen du jaialdia eta aurten kanporaketa bat gure herrian egitea eskatu zion Udalari. Udalak baietza eman zion eta, hortaz, igande horretan Euskal Herri osoko 400 haur inguruk parte hartuko du goizez eta arratsaldez egingo diren saioetan.



*Zabaleta eta Imanolen azken diskaren azala*

**Imanol Urkizuk kaleratu berria du**  
**bere azken diskoa**

Zabaleta eta Imanolen "Gaueko Errondea" izeneko azken diskoa dagoeneko salgai dago.

Disko honetan Imanolek konposatutako bost kantaz gain, Benito Lertxundiren "Lorettoa" abestiaren bertsio berri bat, kantu herrikoiak, eta Amerikako doinu tradizionalak ere entzun daitezke besteak beste.

Guztira, hamalau kantuz osatutako diskoa dugu.

**DORRONSORO**  
 Janaridenda

ABESLARI, 3

TELEFONOA 83 09 37

**MAPFRE, S.A.**  
**ASEGURUAK**

*Eusko Gudari 44 A behea*  
*Telefonia: 13 37 20*

**URBAZTER**

Aseguru eta bidai agentzia

San Nikolas kalea, 8

☎ 13 33 14

**GABON**

Plater konbinatuak,  
 pintxoak...

Telefonia: 83 06 09

## Kultur Etxeko lanak irailean hasi litezke

Udalak udara pasata hasi nahi ditu Kultur Etxea egiteko lanak, aspaldiko asmo bat gauzatzuz. Kultur Etxea egiteko Diputazioaren dirulaguntza izango du Udalak.

Kultur Etxea Eusko Gudari kaleko 26. zenbakian egingo da, maisu-etxe izandako edifizioan dagoen tokian. Proiektua Juan Eizmendí udal-arkitektoak egin du eta bera izango da, baita ere, obra zuzenduko duena.

Itxura denez, oso zaila zen Kultur Etxea egitea etxe zaharraren egitura mantenduz eta, azkenean, botatzea eta berria egitea erabaki du Udalak. Edifizio zaharrak ez omen zuen, bestalde, balio historiko berezirik. Kultur Etxe berriaren proiektua egiterakoan, Udalak herriko hainbat kultur talde eta erakunderen iritziak jaso zituen.

Kultura Batzordeko buruak adierazi digunez, Udalaren asmoa Kultur Etxea legealdi honetan bukatzea da.

Lanak egiten diren bitartean maisu-etxean dagoen biblioteka Kosta tailerrera pasako da.



## Eskusoinu orkestra, berriro martxan

Arritxu Ulazia, konserbatorioko irakasleak, hamairu urte darama eskusoinu joleekin lanean. Denbora luze honetan gainera ere taldeak sari garrantzitsuak lortu ditu: Reina Sofia Lehiaketan 2. izan ziren 1989. urtean, eta 1992an, bai Montpellier-en eta bai Parisen lehenengo sariak jaso zituzten. Egun hogeitabi lagun ditu orkestra honek, eta, soinu joleaz aparte, bibolinjole eta perkusiolaria ere ba dira.

Martxoan hasi dira ensaioak, eta astero, ostiraletan arratsaldeko zortzi terdietan biltzen dira. Dei bat egin nahi dute interesa eta gustoa dutenei parte hartzera gonbidatuz. Bertara hurbiltzea besterik ez dute, eta maila berezirik izatea ere ez da eskatzen aipatutako instrumentuetakoren batekin jotzen hasteko.

ORIOKO PROMOZIOAK I, s.l.

**2, 3 eta 4 gelako etxebizitzak  
merkatal lokalak eta garajeak**

Esle. 2

Tfnoa: 83 41 44

Orio 10310



**ARDATZA**

Eusko Gudari, 7

Tfno. 83 10 88

**TALAI**

**AHOLKULARIAK, S.L.**

A S E S O R I A  
FISKALA, LABORALA,  
JURIDIKOA, KONTABLEA

*Iñaki Olariaga Larrañaga*

Eusko Gudari, 44A-behea  
Tfnoa.-Faxa: 13 37 20

**ORO**



## Bateletako Gipuzkoako Ligaxkan oriotarrak nagusi

Aurtengo arraunketa denboraldian gure arraunlariak ezin hobeto aritu dira hasierako txanpan. Bateletako Gipuzkoako ligaxkan oriotarrak izan dira nagusi, zenbait mailatan getariarrak gogor aritu badira ere. Senior eta kadete mailan "txapela" etxera ekarri dute, eta jubenilak eta infantilak bigarren postuan geratu dira.

Aulki mugikorri dagokionez, denboraldiko lehen txapelketa nagusia aise irabazi dute oriotarrek, jeitsiera modalitateko I. Euskadiko Kopa eskuratuz. Aste Santu honetan bertan, hasiko dira estropada "motxak", 2.000 metrokoak, Legutioko Santa Engrazia urtegian. Skiff eta lemazaindu bikoak untzitako I. Euskadiko Kopa izango da.

## Futbitoko Egutegia

### Apirilak 9

#### "A" Taldea

Orio's Shop-Karabalon  
Oliden jatetxea-Gabon,  
Koasta-Sorgintsuak  
Cosecha 94-Arkaitz

#### "B" taldea

Aurrera Daddy-Kepa harategia  
Quiser-Katxiña  
Indar Gym-Txomin arraindegia  
Errusta-Manchester Field  
Euskadiko Itsas Gaztedia-Kaia solasak

### Apirilak 23

#### "A" Taldea

Karabalon- K2 Gure Txoko  
Sorgintsuak-Cosecha 94  
Gabon-Koasta  
Oliden-Orio's Shop

#### "B" Taldea

Kepa- Kaia  
Manchester Field-Euskadiko Itsas Gaztedia  
Txomin-Errusta  
Katxiña-Indar Gym  
Aurrera Daddy-Quiser

### Apirilak 30

#### "A" taldea

Oliden-Karabalon  
Koasta-Orio's Shop  
Cosecha 94-Gabon  
Gure Txoko-Arkaitz

#### "B" Taldea

Quiser-Kepa  
Indar Gym - Aurrera Daddy  
Errusta-Katxiña  
Euskadiko Itsas Gaztedia -Txomin  
Kaia- Manchester Field

**PATXI**  
HARATEGIA  
Telefona: 83 18 37

URAITZ  
LURRINDEGIA  
KIROMASAJA ESTHETICIEN  
ENDAIA 3 TFNOA 83 18 97

**Antilla**  
**Jatetxea**  
Eguneko menua, karta,  
pintxoak...  
Tfnoa: 83 07 50

**ORRAZKERAK**  
TFNOA. 83 12 61

**ITURAIN**  
**okindegia**  
Aritzoga ☎ 83 08 28

**GURE TXOKO**  
**TABERNA**  
ARITZAGA KALEA

## Talai-Mendiren mendi irteerak

- ✓ Apirilaren 10ean: Otzaurteko Txurruko punta.
- ✓ Apirilaren 24ean: Atzuria mendia, Etxalarren.

## Nesken saski-baloi partiduak

- ✓ Apirilaren 17an: Hondarraitz-Orio
- ✓ Apirilaren 24an: Orio-Alde Zaharra

## Luis Atxega Trofeoa

Apirilaren 2rako Kirol Antolakuntzetarako Komite Lokalak "Euskadiko Bigarren Harrijasotze Sari Nagusia, Luis Atxega Trofeoa" txapelketa izango da frontoian, arratsaldeko 5etan. Proba 100 kiloko kubikoarekin izango da.

## Estropadak

Apirilaren 9 eta 10ean Bateletako Gipuzkoako Txapelketa Getarian izango da.



## Pelota Txapelketak

Maite Redondo, oriotarra, eta Amaia Zuloaga, aiarra, bikoteak parte hartzen du Euskal Ligan eta final-erdietara pastzea lortu du, eta ehenengo partidua 30-28 justu-justu galdu dute. Bigarrena martxoaren 31n, gaueko 9etan Zarautzeko Polikiroldegian jokatuko da. Hemendik animo handienak eman nahi dizkiegu bi neskei.

Bestalde, joan den larunbatean, martxoaren 26an, hasi zen urteroko paleta txapelketa, ekainaren 26an finalak izango dituen lehia honetan hamar bikotek parte hartzen dute. Maiatzetik aurrera, berriz, remonteko eta eskuzko partiduak ere jokatuko dira.

## Frontoiaren erabilerarako arau berriak hemendik aurrera

Azkenaldi honetan problematxoak gertatu dira frontoian, polikiroldegirik ez dagoenez, kirol guztiak frontoira jotzen zutelako.

Arazo horiek konpontzeko asmotan bilera batzuk izan dira udaletxean kirol zaleen artean, eta ondorengo erabaki da:

- Frontoian lehenetsuna izango da pelotak.

- Astelehenetik ostiralera, zazpietatik hamarretara, pelotan egingo da frontoian, ordua ordainduz. Ostegunean zortzietatik hamarretara pelota-eskolakoentzat da.

- Jose Ignazio Atorrasagasti izendatu zen ordu horiek antolatzen. Bere telefonoa: 83 57 20. Indar-Gym gimnasiokoa.

- Apirilaren hogeirako eskatu behar dira ordu horiek eta maiatza osorako buleio dute.

- Libre geratzen diren orduetan, beste kiroletarako ere erabili ahal izango da.

## SARASUA ERRETEGIA

Berezitasunak: — Arrain zopa

— Arrain eta haragi erreak

Eusko Gudari, 29

Tfnoak: 83 00 05  
13 25 32

## BORDATXO Taberna

☎ 13 30 14

## TXOMIN ARRAINDEGIA

Tfnoa: 83 27 47

## OLIDEN HARATEGIA

EUSKO GUDARI, 2

TFNOA 83 10 86

## LIZASO ALTZARIAK

Eusko Gudari, 46 ☎ 83 07 84  
Aita Lertxundi, 6 ☎ 13 33 01

## Juan Anjel Arruti

# Plaieroetako txapelduna

Juan Anjelek 1987tik seniorretan jokatu diren zazpi finaletatik bost jokatu ditu, aurreneko hirurak irabaziz, hain justu Orioko ekipo batean jokatuak hirurak, azken bi urteotan, Zarauzko batean galdu egin baititu.



Jakin degu, futbolerako ezinduta, bertsoan ikasten hasi dala

**Hi omen haiz futboleko txapelketa gehien irabazi duen oriotarra...**

Hori ez zekiat, baina mordoska ederra irabazi dedala bai, seniorretan nabilenetik; plaieroak eta futbitoak kontatuta, Orion 6 irabazi dizkiat, Zarautzen beste 6, Zumaián 3 eta Deban bat. **Zenbat urte daramak plaieroetan jokatzeko?**

Ba, 33 zeuzkat eta 9 rekin hasi ninduan, baina tartean 6 bat urte eman nizkian Zarauzko Klub Deportiboan. **Orioko Klubean ez al dek inoliz jokatu?**

Orduan ez zegoan regionalik, gu saiatu gintuan 20 urte genituen garaian ekipoa ateratzen, baina alferrik, ez genian lortu.

**Zergatik?**

Jende asko zegoan kontra, ez zekiat zergatik, Nahiago ziaten nesken ekipoa atera regionala baino.

**Orduan Zarauzko Deportiboko etapa bukatuta plaieroetara berriz?**

Bai, geroztik hor nabilek, kuadrillakoekin ekipoa osatu, erreferentzia batzuekin, eta hortxe urtero, urte kaxkar mordoa eman genian, eta sasoi onenera iritsita 1987an hasita, C. Azkueren izenean, hiru txapelketa irabazi genizkian. Ordura arte ez huan

sekula Oriora etorri seniorretako txapela.

**Eta aurten finalera iritsi ezker ere ezin jokatu ezta?**

Hori dek, nere plaieroa bukatu dek, kriston lesioa izan diat, partidu gehiegi jokatzen nian batean eta besteetan eta halako batean futbitoan ari nintzala belauna izorrratu, "ligamentos cruzados". Orain reabilitazioa eta oso gogorra eta luzea dek.

**Ezin jokatzeko min handiagoa ematen al dik lesioak berak baino?**

Bai, futboleko une gogor

asko pasatzen dituk, baina lagun onak egin ere bai. Gainera aurten 50 txapelketa denez ospakizun handiak zeudek.

**Zer dago ba?**

Ba, orain dala 25 urte jokatuak finalak egin behar dizkitek, tartean bazegok Orioko ekipo bat. Bordatxo, orduan jubentzetan txapeldun geratu ziranak. Bestetik, Zumaiá, Getaria, Zarautz eta Orioren artean torneo berezia zegok, 30-40 urte bitarteko "heteranoentzat". Orioko ekipoa Santi Zaldua ari dek osatzen. Martxoaren 27an, 50 partidu jokatu hituan batera, Guinness munduko errekorren liburuan, sartuz.

**Gogorra al da plaieroetan aritzea?**

Ba, bai, neguan jokatzen dek, hanka-hutsik, batzutan goizeko zortzietan jokatu behar dek, euria eta kriston hotzadagoela, baina hala ere, gustora, lagunekin elkartu, gero hamaiketako egin, oso plan polita dek. Gainera plaieroetan jokatzeko ez zeukak ekipo federatu batean egoteak daukan lotura, entrenamenduak, partiduak astero etabar... Orduan ikusi duenarentzat etorkizuna ez daukala futboletik egokia dek, bere kasa entrenatu...

**ASEGURUAK**



CARASA, CILVETI, LACORT Y CIA, S.A.

**JUAN LOIDI AZKUE**

Aritzaga, 3 -1 Telefonoa: 83 11 90 ORIO

**ZASS** ILEAPAINDEGIA  
ESTETIKA  
MIXTOA  
SOLARIUMA  
PERFUMERIA  
San Nikolas, 2 Tfnoa: 83 31 70

# Juan Zaragueta Herri Eskola

 830550



**Hurbila** *Instalazio ezinbobeak, kokagune paregabean.*



**Demokratikoa**

*Erlijio eta pentsamolde guztiei irekita  
Denon artean gestionatuta*

**EUSKALDUNA**

*D<sup>o</sup> ikasteredua soilik. Euskal kulturari  
oinarritutako Hezkuntza Proiektu propioa*

**Guztiontzat egokia!**

**Eranginkorra**

*Erreformen gogo-biziz murgilduta*

**Aurreratua**

*Ekipamendu aurreratuenez hornituta  
Gelako itxale-kopuru egokiak*

**Berria**

*Erreformen proposatzen dituen  
irakas-tekniika berriak  
aplikatzen dituenak*

**Kalitatekoa**

*Kaur bakoitzaren beharren  
erantzule*



*Hezkuntza-behar bereziak dituen  
ikaslearen alde jotzen duena*

**Integratzailea**

**Dohaina**

*Zerbitzu guztiak dohain. Jangela eta garrasio  
suntziomatuta, baita eguerdian ere*



*Matrikula epea dagoeneko irekita.*



Bidaian izandakoak, Patxi Iribar eta Maite Garcia ez beste guztiak

# Danimarkako bidaiia

*Otsailaren 28an, astelehena, Danimarka alderantz abiatu ginen, Kopenhagera, Orio eta Aiako udaletako eta arrantzale kofradiako ordezkariak. Eusko Jaurlaritzaren aginduz, "Danish Hydraulic Institute" izeneko erakundeak, Orioko barraren sarrera hobetzeko egindako modelo fisikoa ikustera.*

## MIREN ETXEBERRIA

Bidaiaren helburu nagusia Danimarkako Institutu Hidraulikoak Orioko barraren sarrera hobetzeko prestatua zuen modeloa ikustea eta aztertzea zen.

Baina honetaz gain, Da-

nimarkako bidai luzeak (ia 5.000 kilometro) bazuen beste helbururik. Zenbait herritako arrantza, kirol eta egonez gero, merkatal portuak bisitatzea zen beste asmotako bat.

Herri hauetako portuak ikusi genituen: Arcachon, La Rochelle, Les Sables D'Olo-

ne, Lorient eta Saint-Malo.

Autobusez egin genuen bidaiaren iraupena zazpi egunetakoa izan zen. Otsailaren 28an, astelehena, goizeko 6:30etan ateratu ginen eta martxoaren 6an, igandea, arratsaldeko 6etan bueltatu Oriora.

## Bidaiaren kostuak

Zazpi egunetako bidaiaren kostua bi zatitan bana daiteke.

Batetik, autobusaren kostua: 950.000 pezeta. Eta bestetik, dieta eta hotelena: 1.500.000 pezeta.

Autobusaren kostua oso-osorik Eusko Jaurlaritzak ordaindu du.

Otordu eta hotelen gastuak berriz, bidaiaren parte hartu zuten hiru entitateen artean banatu dira:

- Aiako Udalak: 250.000 pezeta.

- Orioko Kofradiak: 550.000 pezeta.

- Orioko Udalak: 700.000 pezeta.

Guztira, 27 lagun joan ginen. Aiako udaleko lau ordezkari, Orioko udaleko hamar eta Orioko kofradiatik bederatzia.

Hauetaz gain beste hiru pertsona gehiago joan ginen zeregin bereziekin; Maite Garcia, bideogilea; Esther Facchin, itzultzailea eta Mirren Etxeberria, kazetaria.

## Bidaiaren antolaketa

Kopenhagera iristeko ia 2.500 kilometro egin genituen, eta denbora hobeto aprobetxatu asmoz, modu honetan antolatu genituen egunak.

Goizean goiz esnatu, hoteleko komedorean gosaldia eta bidaiari ekiten genion. Bidaiari zehar, alde zuzetik aukeratuak zenbait herritan, ordu bateko edo ordu erdiko geldialdiak egiten genituen, bertako portuak ikusiz.

Eguerdiko partean, gogoratuak, autobusa apartatu, eramandako janaria eta mahaia atera, eta korrika batean bazkaltzen genuen. Eta, habilitadea libre, baten batzuek bokadillo bat baino gehiago jatea lortzen zuten.

Berriro ere bidaiari ekin eta iluntzean hotelera iristen ginen. Gaueko otordua berriz, hoteleko komedorean izaten zen.

Bidaiari berez gogorra izan hazen ere, denok bat eforri gara gure artean giro ezin hobea izan genuela esatean. Izan ere, ondo pasatzeko betarik izan genuen, bai autobus ha-

rruan eta bai kanpoan ere. Esate baterako, Kopenhagen pasa genuen azken gauean, denok diskoteka berberean topatu ginen eta elkarrekin dantzatzeko ibili ginen.

## Modelo fisikoa

Orioko barraren sarrera hobetzeko egindako modelo, 1:72 eskalan egina zegoen; hau da, errealitatean baino 72 aldiz txikiagoa zen. Modeloak hartzen zuen azalera berriz, 20 metro zabal eta 30 metro luzerakoa zen.

Eskalan egindako esperimentuetan ikusi genuen, egingo den dike berriak nola aguantatuko lituzkeen, bai marea goran eta bai marea behean, 2 metrotik 11 metro bitarteko olatuak.

Dena dela, modelo ez da definitiboa. Eusko Jaurlaritzako teknikariek, modeloaren datuetan oinarrituz, behin-betiko proiektua

izango dena uztaila alderako bukatuko dute.

Obrak, aurtengo adjudikatuko dira, eta beraz, urte bukaeran edo datorren urtearen hasieran hasiko dira obrak.

Obraren kostua 2.300 milioi pezetakoa izango da.

## Hainbat iritzi

Jose Migel Makazaga alkatea, Iñaki Sarasua kofradiako idazkaria, Itziar Olariaga zinegotzia eta Santi Manterola arrantzaleari, laurak Danimarkan izandakoak, galdera pare bana egin genien beraien iritziak eta impresioak jasotzeko asmoz.

Barrako konponbideari buruz, laurak oso itxaropenetsu azaldu ziren. Hona hemen emandako erantzunak.

Alkateak: "Nire ustez, oraingoan behin-betiko konponbidea emango zaio barrari".

Iñaki Sarasua: "Arrantza-

leek eskatzen zuten planteamendua betetzen du modeloak. Hau da, dikea itsasoaren kontra joatea, olatua haustea. Gero ikusi behar dena, hondarraren mugimendua da. Baina diru kantitate handia da, proiektuak huts egiteko".


Itziar Olariaga: "Orioko arrantzaleak joandako ehundaka urteetan barra hori ari dira eskatzen eta espero dut soluzioa emango zaiola aspalditik dugun problemari".

Santi Manterola: "Soluzioa, honekin dagoela iruditzen zait, itsasoak lehen baino indar gutxiago izango duela barran; barra berririk honek indar gutxia kenduko dio itsasoari. Baina, itsasoak lanik egingo ez badu ere, ur gutxirekin geldituko garen beldur naiz".

Bidaiaren antolaketari buruz galdetu genienean, oso gustora azaldu ziren laurak, baina Itziar Olariagaren ustez, "gaiari buruz jakitunak edo tekniko gehiago joan behar zuten; eta agian, arrantzale gehiago ere bai".



Eguerdiko otorduak modu honetan egiten genituen



## Zenbait datu

✓ Orain dagoen barra 150 metro luzatuko da gutxienez.

✓ Dike berria *Amesti* menditik egingo da. Dikearen luzera, gutxi gora-behera 370 metrokoa izango da. Eta, marea behean dagoenean, 16 metroko altuera izango du.


✓ Dikeak bi pasealeku izango ditu, Getariakoaren tankerara.

✓ Muturreko bokanaren zabalera 200 metrokoa izango da. Eta, marea behean dagoenean gutxienez 5 metroko kalatua izango du bokanak.

✓ Dike berria egiteko erabiliko diren harriak, 50 eta 75 tona bitartekoak izango dira. Dikearen muturrekoak 75 tonakoak izango dira. Eta, hasieran edo enborrean jarriko direnak 50ekoak.

✓ Orain dauden hiru espigoi txikiak, bere horretan geratuko dira.

✓ Itsaso aldera dagoen azken espigoi txikia eta orain dagoen barraren arteko zabalera 80 metrokoa izango da, orain bezalaxe. Zabalera honi eusteko, azkeneko espigoi-tik dike berriraino bete-lana egingo da ibaiko ura eta hondarra kanalizatzeko.



# "Sarobe" gogorarazi dit Bartzelonako suteak

Bartzelonan gertatu zen suteak emandu zeresan eta zeridatzirik. Musikaren eta bereziki Operaren jauregi eta gordeleku izan den "El Gran Teatro del Liceo de Barcelona" ezagunean gertatutakoari buruz ari naiz.

Azkar jakin ditugu askorentzat ezezagunak ziren hamaika xehetasun eta gora behera, hala nola, familia aberatsak Liceoan bertan zutela etxeko saloiaren jarraipena izan zitekeen saloi txikiago bat, beraiek nahi bezala egokitua eta hornitua. Edota, nahi baduzu, etxeko jangela dotorean afaldu ondoren, postrea eta kafea hartzea etxeko saloi nagusira pasa ordez, Liceoan, erretako jauregian, zuten saloi horretara joaten zirela, balkoi eta guztiko horretara, beraietzat propio munduko auskalo zein lekutatik ekarritako artistak entzun eta ikustera. Suak betirako erreak izango dizkie, noski, gairsari hauek.

Ondo erakutsi dute, bestalde, Bartzelonakoek aspalditik aitortua zaien "gauzak" saltzeko azkartasuna. Erraz lortu dute denok "negar" egitea, sute horrek eragindako hondamendiaren aurrean eta denok gaude "gogoturik", aidanean, lehenbailehen konponketan has daitezten. Azken batean, Orioko barrarenak itxoin dezake bere horretan beste hainbat urtetan, Segoviako Acueductoak bezalaxe, eta Sestaok eta langabeziak eta... eta... eta...

Musika-saio bereziak egin dira irratietan Liceoaren historia jende xeheak ezagutu dezan. Opera munduko jainko eta jainkosak bertan izanak direla jakin ahal izan dugu. Haiek abestutakoaren zati grabatuak entzun ditugu. Izen zerrendak egin dira eta hauetan SARO-



GABI GURRUTXAGA  
IRAKASLEA

BERen falta sumatu da, gure herri txiki honetako semea den Celestino Agirresarobe Zatarain, "Sarobe" handiarena.

Bazuen kale bat Orion orain urte batzuk, bazuela diot orain ez baitu, gaur "Abeslari kalea" izena duen horixe bera, oker ez banabil. "Hermanos Agirresarobe" izena zuen kale honek, Celestinoren eta bere anaia "Don Paco" medikuaren ohorez horrela izendatua.

Badu aipamenik musika-liburu eta enziklopedietan. Denek esaten dute Orion jaio zela 1892an, baina "tenore" titulua ematen diote BARITONO handiari (ikus Añamendi, Musicos vascos...)

BARITONO handi honek 1918ko abenduaren 18an abestu zuen lehen aldiz Liceoan. G. Donizetti-ren "La favorita" operako "Alfonso XI" zen, "Leonor" berriz, Aga Lahowska handia. La Publicidad egunkariaren esanetan, "debut ezin hobea" egin zuen. La Vanguardia-k haxe zioen: "Abeslari on eta asko-ikasien estiloa eta errazta-

sunu du. Debuta arrakastatsua izan da".

Liceoak duen kontserbatorioan aritu omen zen Sarobe noizbait, abesteari utzitakoan izango zen noski, "Alta Opera"-ko irakasle bezala, baina ezin izan didate eskaini honen inguruko argibiderik Liceoan.

Berak 20-30 urte luzeetan metatutako jakinduria besteci erakusten eman zituen azken urteak oriotarrak Bartzelonan. Eskolak, hitzaldiak, liburuskak, artikulak... dira horren lekuko, "Problemas del canto" izeneko artikulua sorta argitaratzen ari zen azken urteetan, Ritmo aldizkarian, heriotza iritsi zitzaionean. 1952ko ekainean hil zen eta irailera alean argitaratu zuten bere azken lana. Haxe zioten oriotarraren omenez: "Su caballerosidad y su trato exquisito le granjearon, tanto como su talento artístico, generales simpatías. En paz descanse".

Bartzelonako Liceoan bezalaxe ibilia zen munduko, eta bereziki Europa osoko, teatrorik ospetsuenetan: Madrilko Teatro Real, Lisboako San Carlos, El Cairoko Teatro Real, Pariseko Opera, Italiako eta Alemaniako ospetsuenetan, Danimarka, Yugoslavia, Suiza, Norvegia... Amaigabea da zerrenda.

Hogei urte zituela mediku-ikasketak bukatu, denbora batez zirujano-lanetan ibili eta mediku-jantziak zintzilikatuta utzi zituen betirako. OPERA-ko pertsonaien jantziak nahiago izan zituelako, Jantzi ere makina bat jantzi zituen Celestino Agirresarobe Zatarain, "Sarobe" izeneko BARITONO handiak. "El Gran Teatro del Liceo de Barcelona"ko suteak gogora ekarri didan oriotarra.

# Iñake Irastorza eta Marije Gurrutxaga antzerkiaz maiteminduta

*Bi neska oriotar, biak Donostian bizi dira, biek antzerkia egiten dute: Iñake profesionala da, antzerkitik bizi da, eta Marije langabea da eta antzerkia afizioz egiten du. Iñake Madrilan egon berria da bere azken lanarekin "Kakatu berdea" eta Marije Donostiako fakultate eta institutuetan ari da "Bernarda Albaren etxea" erakusten. Bi jarrera antzerkiarekiko, bi ikuspegi antzerkiari buruz.*

IÑAKI ITURAIN

**KARKARA:** Nola sartzen da Itsaspen jaiotako neska antzerkiaren munduan. Zer dala-ta?

**Iñake Irastorza:** Nere etxean ez da inor izan antzerkizale; Aizperroko eskolan nenbilen garaian egin genuen pare bat gauza txiki. Gogoia betidanik izan det, zinerako ere bai, baina bati-pat antzerkirako eta adolezentszia garaian sekulako irrika sartu zitzaidan Donostiara iristen ziran gauza guztiak ikustera joateko, lagunak utzi eta bakarrik joan behar banuen ere. Eta gero ahal izan nuen bezain zoriz talde batean sartu nintzan, "Orain" en eta aurrera.

**K.:** Nolakoak izan ziran lehenengo pausuak?

**II.:** Orduan hemen ez zegoen, ez eskolarik eta ez ezer, eta posibilitate bakarra talde batean sartzea zan Jakin nuen Orain-en bi lagun behar zituziela, joan eta hartu egin ninduten. Aurreneko papera haurrentzako lan batean izan nuen.

**K.:** Antzerkitik bizitzerik

ba al dago Euskal Herrian?

**II.:** Bai, baina ez da bate-re erreza, ahalegindu behar izaten da bestelako lanak ere lortzen, telebistan...

**K.:** Aukeratzekotan zeintzuk dira lanbide honen alderik onena eta txarrena?

**II.:** Alderik onena, nerez-tzat, oso modu kontzientean aukeratutako lana dala, benetan nahi dedana egiten ari naizela, askatasun osoz. Txarrena ekilibrioak egiten ibili beharra, diru aldetik eta askotan arazoak izaten dira, nahi dezuna egiteak bere

prezioa dauka.

**K.:** Egin dituzun paperren artean zein dezu gustokoen?

**II.:** Ez dakit, danak maite ditut, asko gainera, orduan gustokoen... uste det ama bati zein seme maite duen gehien galdetzearen antzekoa dala. Orain zerbait komikoa egingo nuke gustora.

**K.:** Nola ikusten dezu gaur egun euskal antzerkia, baldin badago?

**II.:** Bai badago. Ez det ondo ikusten, osasun ona dauka baina zailtasun handiekin topatzen ari da. Orain urte batzuk genituen ametsak trabatuta daude. Gainera zorioneko krisi honek guri ere eragiten digu.

**K.:** Azken urteotan "Ama begira zuzu" izan da arrakastarik handiena lortu duena. Zergatik gertatu da?

**II.:** Tokatu egiten da, formula ezagutu gabe, eta bila joan ezker ez da etor-

izen. Kasu honetan gantxoia izan zan kostunbrismoan oinarritzea, sakontasunik gabe istorio arinak eta gertukoak kontatzea, asko pentsarazi gabe. Koktel egokia izan zan, baina antzeko beste baten bila joango bagina seguruenaporrat egingo genuke. Nik uste det era guztietako antzerkia egin behar dala.

**K.:** Zer toki eta zer betebehar dauka antzerkiak gure gizarte honetan?

**II.:** Antzerkiak erreflexioa bultzatu behar da. Problema asko daude betikoak diranak, eta gaurko gizarte-ean ez dago denborarik eta patxadarik betiko galderei erantzuna emateko, telebision sekulako belozidatea dago eta bizimoduan ere bai, ez dago ezer sakontzeko betarik, eta hor antzerkiak bete dezake funtzio hori. Antzerkia zuzenean da, bertara joan behar da, ritual bai da, nere ustez aberatsa da.

**K.:** Zinea eta, batez ere,



teleshita kompetentzia handia al dira?

**I.I.:** Arte munduan antzerkia da dagoen artesana-lena, egiteko eratik hasita. Gaur egun telebisiok kriston arrakasta du, baina ez degu uertu behar hori kompetentzia moduan, bestela ez geneukake zer egiterik. Desberdinak dira eta bakoitzak bere lekua du. Baina nere ustez erreflexio sakona egin behar genuke zer ematen dan telebisioren bidez.

**K.:** Kalean jendeak antzerki asko egiten al du?

**I.I.:** Bai, gehiegi, batipat politikoeak. Antzerki txarra egiten dute nahiz oso antzezle onak izan, baina antzerki mota hori oso arriskutsua da, nik ez det egin nahi.

**K.:** Zuen bizimodua bohemioa al da?

**I.I.:** Ez horrenbeste, baina badu oraindik zentzu idealista bat, baterik bestera zabalitza, jende asko ezagutzen dezu...

●●●●●●

**K.:** Nolatan hasi zinan antzerkian?

**Marije Gurrutxaga:** Ni Aieten bizi naiz. Etxadik, hango Kultur-Elkarteak ikastaro asko antolatzen ditu; ni beti izan naiz antzerkizale eta orain hiru urte izena eman nuen antzerkia ikasteko, buratik pasa gabe inoiz eszenario batean egongo nintzanik. Lehenengo kurtsoa bukatu eta gero musikal bat montatu genuen, oso dibertigarria, eta horrekin batera taldea sendotu egin zan eta konfuratu ginan gauza ge-



*Txino-gorritxo moderno eta sexyaren paperean*

hiago egitea ere bazegoela eta ustekabeen deitu gintuzten "Emakume idazleen jardunaldietako" klausura ekitaldira, gero Bilboko Arriagatik eta horrela.

**K.:** Lotsa sentitu al dezu jendaurrean jartzean?

**M.G.:** Hasieran izugarria, atera egin behar eta gorputza dardarka, beldurra izaten zaito farregarri gelditzeari. Baina gaingitu egiten dezu.

**K.:** Zertarako balio dizu zuri antzerkiak, zer ematen dizu?

**M.G.:** Neretzat oso aberasgarria da. Literatura beti gustatu izan zait, baina zaila izaten da denbora hartzea horretarako eta orain antzer-

kiak behartu egiten nau irakurtzera. Bestetik laguntzen dit nere burua hobeto ezagutzen, zenbait emozio, reprimiduta dituzunak atera egiten dituzu, ahalmen berriak ezagutzen dituzu, lehen izkutuak zeudenak.

**K.:** Lehendik ba al zenuen harremanik antzerkiarekin?

**M.G.:** Ez, Orion Srta. Fernandezekin zerbait egin genuen, Bibliako pasarte batzuk eta horrela, baina besterik ez. Orain, dantzatzea eta kantatzea-ta asko gustatu izan zait beti.

**K.:** Zer da zailagoa farre ala negar egitea eszenan?

**M.G.:** Problema da pert-

*Marije komedia musikal batean*

sonajearen barruan sartzea, zailtasuna hor dago. Hori lortu ezker negar egitea eta farre egitea erreza da. Baina ez da finjitu behar, sentitu egin behar da, bestela ikusleak ere ez du sinestuko.

**K.:** Orion Kultur-Etxea jartzekotan dira. Jendea prest balego antzerkiaren munduan lehenengo pausuak emateko, oinarria erakusteko prest al zinateke? (Biek erantzun zuten)

**I.I.:** Ni prest nago, ikusi beharko litzateke zer eskatzen duten, baina printzipioz bai.

**M.G.:** Bai, bai, gainera oso polita eta interesgarria da, gauza asko ikasten da.

**daddy**

BAKERO,NIKI,  
KAMISETA, JERTSEAK...

Estropalari kalea, 12 - Telf. 1 3 2 8 1 6 - ORIO

**Goxoki**  
Gozotegi-Kafetegia  
AZKUE

Eusko Gudari, 33 ifnoa: 83 39 20

## HBri erantzunez



KARKARAKo azken zenbakian HBren fribolitatea ikusteko aukera izan dugu, batere harrigarria egin ez zaiguna, bestalde. Hori dela-eta, azalpen batzuk egin nahi ditugu:

1) Babes ofizialeko etxebizitzak direla-eta, Udalak oraintxe jaso ditu bi eraikuntza-enpresari eskatutako biabilitate-proiektuak. Proiektu horiek lurjabeekin eztabaidatutako konbenio-zirriborroa oinarrian hartuz eskatu zitzaizkien. Badirudi gaia laister konponduko dela.

2) Etxe Luzea erosteko proposamena alkateak egin zuen 1993an.

3) Botalekun pabiloi industria-lak posibilitatzea alkateak proposatu zuen 1993an, kaskoan dauden industria txikiak kokatzeko, eta jasotako erantzunak ez dira baiezkoak izan.

4) Kasko zaharreko garajeena konpontzeko arazo asko daude (lur falta, orografia...) baina ez dugu baztertzen lurjaberaren batekin akordiotara iristea.

5) Estropalari atzean lur azpiko garajeak kokatzearena ez da HBren ideia edo patrimonioa.

6) Autopistatik iparraldera dauden zonaren (hondartza eta inguruak) ordenamendua aurreko legealditik dator eta, egia esateko, «interesak» oso inportanteak dira... Orioko herriarentzat.

HBko zinegotzi bat benetan artista da besteei kulpa botatzen, bere inkapazitate, inkompetentzia eta borondate falta ezkutatzeko.

Hala ere, EAJk Orioren alde egin nahi duten guztiekin akordioak lortzen eta lan egiten segituko du.

Horregatik, epe motz eta ertai-nean Orioren garapenerako inportanteak diren gaiak azpimarratu nahi ditugu:

- Barrako lanak hastea
- Kultur etxeko lanak hastea
- Anibarko Portuko babes ofizialeko etxebizitzak egiteko lanak hastea
- Kiroldagiko lanak hastea

— Udaletxea berritzeko lanak hastea

— Hondartzako pasealekuko lanak hastea

— Eusko Gudariko saneamentuko lanak hastea

— Motondoko industriagunea bultzatzea

— Gizarte-babesa eta kultur, kirol eta gazte-aktibitateak indartzea

Aukera honetaz baliaitu nahi dugu, bestalde, Orioko barraren arazoa konpontzeko Orioko eta Aiako udalen eta Eusko Jaurlaritzako Portuetako Zuzendaritzaren artean dagoen kolaborazio estua eskertzeko. Danimarkara egindako bidaiari argi geratu da kolaborazio hori eta, baita ere, ibaiaren inguruan aberastasuna sortzeko hainbat aktibitate indartzeko dagoen ilusioa.

EAJk Oriok aurrera egin dezan egiten du apostu, oriotarrek merezi dute-eta.

● *Erredakzioan itzulia*

### ZUMINTZA

- *Hezapaindegia*
- *Estetika*
- *Depilazioa*
- *Sauna*

Tfnoa: 83 17 56

### ALTXERRI

#### Jatetxea

Telefonoa: 83 07 62

### ERAIKUNTZARAKO MOTA GUZTITAKO MATERIALAK

## ANTONIO ALONSO S L

- Gres eta azulejuen erakusketa
- Komuneko eta sukaldeko altzarien erakusketa
- Sukalde ekonomikoak

#### Almazena eta erakusketa

Santiago auzoa

tfnoa: 13 25 33

faxa: 83 57 01

#### Denda eta ofizina

Iturbide, 5

tfnoa: 13 10 88

# Altxerri

*Altxerri aipatzean jotetxea, kobazuloa edo patroia datorkigu gogora oriotar gehienoi baina, berez, gaur egungo restaurantearen parean, errekaen beste aldera, dagoen baserriaren izena da. Bertan hartu gintuen Juan Garatek udaberriko lehen egunez eta patxadaz hitz egin genuen berarekin orain handiegia ematen duen etxean. Alejandro anaia ezkongabea eta biak bakarrik bizi dira orain garai batean jendez gainezka egondako baserri ederrean.*

ANA G. DE TXABARRI  
JABIER ZABALETA

Altxerri baserriak Europako aztarnategi inportanteenetako bati eman dio izena eta, seguru asko, bera izango da entziklopedia handitan azaltzen den gure baserri-izen bakarra. Ez da izatez Oriokoa, Aiako lurretan baitago, baina Juan Garatek azaldu digunez oriotartzat du bere burua "kanpora goazenean-ta, Oriokoak gerala esaten degu, hartu-eman guztiak —erosketak, eskola, lana, elizarekikoak...— Oriorekin izaten ditugu-ta".

Juanek ez daki noizkoa izan litekeen baserria baina, bere aurrekoei adituta, badauki orain dela 400 urteko paperetan ere azaltzen dela Altxerri. Izena nondik datorkion ere ez dago oso garbi baina, itxura denez, aintzina altz ugari zegoen paraje horietan eta Juanek entzuna du baserriaren jatorrizko izena Altxerri izan zitekeela.

Baserriaren atzean harrobia dago, aidanean aspaldi-

tik funtzionatzen duena. XIX. mendearen bukaeran kostaldeko trena Oriora iritsi zenean zubi altu xamarra eraiki behar izan zuten trenbidearentzat Altxerri inguru horretan eta zubia egiteko harria bi tokitatik atera omen zuten: Altxerriko harrobitik eta Orioko barratik.

Altxerriko kobazuloaren sarrera Juanek eta Oribar baserriko Manuelek aurkitu zuten kasualitatez 1956an.

Nonbait, baserri atzeko harrobitik harria ateratzen ari ziren bidean botatzeko, artean ez baitzegoen egina oraingo asfaltozko bidea. Horretan ari zirela, dinamita-kartutxo baten ezlandak utzi zuen zuloa agerian.

1962an, grabatuak eta pintura aztarnak aurkitzerakoan, Aranzadi Elkarteari eman zitzaion abisua eta Aita Josemiel Barandiaran aritu zen kobazuloa aztertzen. Azterketa-lanak iraun zuen bitartean, Aita Barandiaran baserrian egon zen bizitzen eta Orion ematen omen zuen meza egunero. Goizean gosari legea baserrian egin gutxi janda konformatzen zen horietakoa zen nonbait eta egun osoa ematen omen zuen koban.

Inguruko baserri asko bezala Altxerri ere galdu egingo dela esan digu Juanek "baserriak ez baitu ematen bizitzeko". Juanek lau alaba

eta seme bakarra izan ditu eta gaur egun alabak baizik ez dira bizi, semea istripuz hil baitzitzaion. Gauzak horrela, ez du uste baserriaren martxa inork hartuko duenik eta pena ematen dio horrek. Bada urte batzuk ez dagoela aziendarik baserrian eta orain oilo batzuk baizik ez dituzte. Sagardoa ere bertan egiten zuten orain dela hiru urte arte baina dolarea utzita dago harez geroztik.

Juan Garate ez da, hala ere, joandako denborari penaz begiratu eta etsi egiten duen horietakoa. Inondik ere, Irriparrez aitortu digunez "parrandero samarra naiz oraindik eta id astero egiten det salidatsoa inguruko baserrietako lagun batzuekin batera. Egun pasa joaten gera Lizartza, Leitza, Larraitz edo beste norabait". Begiratu pikarora du zera gehitzen duenean: "...bihar ere bagoaz Tolosara".



Azken herriketa lanak egin eta gero, honako itxura ederra du Altxerri

**Jaiotakoak**

Ekain Lizarraide Lazkano,  
otsailaren 25ean

Goiuri Unanue Arruabarrena,  
martxoaren 7an

Irune Pikabea Salsamendi,  
martxoaren 9an

**Ezkondutakoak**

Marcial Nikolas Lopez eta Olga  
Iriondo Larrañaga, martxoaren  
19an

Eusebio Ruiz Aramburu eta  
Urrategi Mugika Iñarra,  
martxoaren 19an

J.Mari Aizpurua Azkue eta Sara  
Arruti Ernategi, martxoaren 26an

**Hildakoak**

Milagros Lizaso Manterola,  
otsailaren 22an. 67 urte

Victoria Alvaro Manterola,  
otsailaren 26an. 80 urte

Evaristo Lertxundi Argiñena,  
martxoaren 15ean. 56 urte

Jose Esnal Errasti, martxoaren  
20an. 83 urte

Manuel Sarasua Aia,  
martxoaren 24an. 78 urte

**HIZKI ZOPA**

K	I	L	I	Z	A	S	O	M	A	B
D	A	Z	O	P	R	A	H	K	O	E
G	O	L	A	R	I	A	G	A	P	F
H	K	L	N	E	Ñ	M	S	A	M	O
D	P	A	P	Ñ	E	R	T	S	A	B
V	Y	E	R	T	A	D	G	K	K	U
E	T	X	E	B	E	R	R	I	A	P
S	N	M	S	E	R	M	A	E	Z	K
U	T	R	N	Ñ	U	I	O	L	A	Y
K	U	I	A	X	N	E	T	O	G	A
M	Z	K	L	B	E	R	S	T	A	F
V	I	Ñ	P	E	R	V	G	Y	E	R
O	K	X	A	Z	A	R	R	A	L	N
J	R	M	E	T	A	C	I	K	E	T
A	U	S	A	R	A	S	K	L	P	O

*Ale honetan, Danimarkara joandako hamar oriotarren  
abizenak bilatu behar dituzue*

**Zorionak****Xabier Sukiari**

*Zarauzko bertsolari ezagun batek esan zuen zailagoa dela oriotar batek bertso txapelketa irabaztea zarauztarrek Kontxako bandera baino. Zorionak Lizargatekoari I. Bilintx Txapelketa irabazita hori gezurtatu duelako eta oriotarrei itxaropena eman digulako egun batean Txapelketa Nagusiko txapela ere gure herrira etor daitekeela pentsatzen hasteko, hori baldin bazen zarauztarrak esan nahi zuena. Eutsi goiaril*

**Zoriotarrak****Goiko kaleko obrak**

*Hasitako obrak bukatzeak luze jotzen du askotan, baina Goiko Kalean bizi direnak pasa behar izan dutena (orain Antxiolako lanak bukatuta, pixka bat hobeto daude) markaz fuerakoa izan da. Akzesio gehienak itxita denbora pila batez, bideen erdiak altxata... Bagenekien kalbarioa Goiko Kaletik barrena egiten zela, baina...*



honetan

## Kopenhage

*Martxoaren hasieran ia hogeita hamar lagun, gehienak oriotarrak, European barrena bidaia luzea egin eta, gure antzinako baleazale auserat haien tankeran, ipar hotzeraino iritsi dira. Ez Ternuara kasu honetan, Kopenhagera baizik.*

*Piska bat xelebrea ere bada barrako arazoaren soluzioaren bila mendetan hainbeste buelta eman ondoren, azkenean irtenbidea non eta Kopenhagen zegoela konturatzea baina, hori alde batera utzita, hemen azaldu nahi dudak kezka bidaiari berari buruzkoa da.*

*Hogeita hamar lagunek astebe-teko bidaia egin dute Kopenhageraino, bidean hamaika portu bisitatuz, bukatu gabe dagoen eta oraindik definitibo ez den barraren modeloa ikusteko.*

*Niri gehitxo iruditzen zait. Laneko bidaia egitekotan —eta ez dut esaten egin behar ez denik— beste modu batera antolatu beharko litzatekeela uste dut, denboraz motzagoa eta jende gutxiago eta jantziagorekin, praktikoagoa, alegia. Bestela, kasu honetan gertatu den bezala, Orioko herritarrari kezka sortzen baitzaio, laneko bidaia edota bakaziotakoa izan ote den eta ez dago egoera horrelako dudak sortarazteko motiboak emateko.*

● JABIER ZABALETA ●

—Kirola eta osasuna guztiontzat—

## Jarri gorputza martxan!

Azkenengo KARKARAN gorputzak dituen ahalmen fisikoak banan-bana aztertu genituen, osasunarekin dituen loturak zehaztuz.

Oraingo honetan, erresistentzia lortzeko arau praktikoak ezagutuko dituzue, norberak bere buruari egokitu-tako programazioa egin dezan.

Erresistentzia lanak ezaugarri konkretu batzuk ditu parametro hauekin: ARIKETA MOTA, IRAUPENA, INTENTSITATEA, ZENBAT SAIO ASTEAN. Hauek kontsideratuz eta Orio bertako toki egokiak kontutan izanda, bakoitzaren adibide bat jarriko dugu jarraian.

**ARIKETA MOTA:** Erresistentzia lantzeko edozein iharduera mota da egokia: oinezko ibilialdiak, korrika saioak, bizikleta, igeriketa, arrauna,.... denek dute erresistentzia lantzeko behar den baldintza bakarra: gorputzeko gihar multzo handiak mugitzea, bihotzak lan handia egin dezan. Ikusten duzue ez duzue aitzekirik mugitzen ez hasteko. Oinez edo korrika hasi ezkerro Anibarko Portutik plaiaraino HIRU KILOMETROdituzue ordekan, aldapa pixkat nahi izan ezkerro estaziotik Arizterrasuraino SEI KILOMETRO, Kukuarri ere ondo esku-  
ra dago, edo, taldean joateko, Pagoeta edo Ernio. Bizikleta baduzue gogoko, Zumaiaraino joan eta etorri itasertzetik. Nola ez, arraunean aritzeko HARMAR KILOMETRO erriean, Klubean enbarkazioa eskatuta. Problema bakarra, Orion piszina egin arte, igeri egi-

teko Zarautzaino joan behar dela, neguan behintzat.

**IRAUPENA:** Erresistentzia lantzeko iraupena norberaren ahalmena eta ariketa motaren arabera egongo da, baina hemen jartzen dizkizuet gutxi gora-beherako adibideak:

Oinez: 60-70 minutu

Korrika: 30-40 minutu

Bizikletan: 70-75 minutu

Igeri: 35-40 minutu

**INTENTSITATEA:** Hau handitzen badugu, lehen aipatutako saioak laburtu egingo ditugu, gehiegi nekatu eta gelditu beharrean aurkituko garelako. Beraz ondo neurtu beharko dugu intentsitatea:

— amasa errez hartu behar da, ondian dagoen beste batekin hizketan jarraitzeko moduan.

— bihotzaren taupadak hartuz, eta hauek minutuko 120-150 bitartean mantenduz.

**ASTEKO SAIOAK:** Astean HIRU SAIO egitea nahikoa da osasunarentzako. Ahal bada, bi saioaren artean, egun bat utzi beharko duzue, eta hau, batez ere, *asteburuko kirolariei* zuzendutako aholkua da. Hobe da horrela egitea eta ez larunbat eta igandean bi saio erraldoi, segidako eta kaltegarriak egitea baino.

Hasieran esan dudak bezala, ez dago aitzekirik martxan jartzeko. Nola egin, badakizue, eta non ere bai, Orion, noski.

Rafa G. de Txabarri

**iTZiAR**

**Kirolak**

☎ 83 31 03

**Carmen**

ARRAINDEGIA

tfnoak: 83 05 37 83 33 71

**AURRERA**

disco-taberna

ORIO

# Zaharren egoitzak: beharrezko baliabidea

*Azken bolada honetan sarritan entzuten dugu gizartea zahartzen ari dela eta prozesua azkar doala. Esate baterako, 2000. urtean Gipuzkoan 65 urtetik gorako 27.000 herritar gehiago izango da, hau da, 1991n baino % 32 gehiago eta 1975ean zeudenen doblea.*

## MARIA LUISA URBIETA

Gauzak horrela, hirugarren adineko pertsonentzat gero eta baliabide gehiago sortzen ari dira: etxez etxe-ko laguntza-zerbitzua, etxetako telealarmak, Eguneko Zentroak, Zaharren Babeslekuak, neguko egonaldietarako programak, aldi baterako egonaldiak egoitzetan...

Bestelako aukerak ere badaude: tutoretzapeko etxebizitzak eta zaindutako apartamenduak, harrera-familien programa eta, azkenik, zaharren egoitzak.

Baliabide horien bitartez,

zera lortu nahi da: edadeko pertsona ahal den gehiena izatea etxean. Baina hori ezin da beti lortu eta batzuetan etxetik atera beharra izaten dute zaharrek. Horrelako kasuetarako dira zaharren egoitzak.

## Zer dira egoitzak?

Egoitzatan laguntza etengabea eta asistentzia integrala ematen zaie zaharrei. Eskaintzen dituzten zerbitzuak honako hauek dira: egonlekua eta mantenua, laguntza mediko-geria-

trikoa, errehabilitazioa, terapia okupazionala, podologia eta bestelakoak (kultur aktibitate eta jolasak, batez ere).

Zaharren osasun-egoeraren arabera, bi egoitza-mota daude:

**Egoitza mistoak**, gai diren zaharrak eta elbarriak hartzen dituztenak eta **zaintzapeko egoitzak**, osasun-egoera txarrean daudenak hartzen dituztenak.

Zaharrak egoitzatan sartzeko arrazoiak era askotakoak izaten dira: osasun-egoera txarra, bakardadea, familiarekin bizitzeko zailtasunak, etxebizitza-arrazoiak, arrazoi pertsonalak...

## Oriotarrak zaharren egoitzatan

Gauregun, bederatzi oriotar daude egoitzatan ingreatuta, zazpi emakume eta bi gizaseme.

Bederatzi horietatik lau alargunak dira, hiru ezkongabeak eta bi, berriz, ezkondua daude.

Bataz besteko adina 78 urtetik gorakoa da.

Oriotar gehienak Zarauzko Santa Ana egoitzan daude, bost denera: Carmen Lertxundi, Santiago Lertxundi, Virgilia Carabias, Ignazia Olasagasti eta Inaxi Lezeta. Zumaiako San Juan egoitzan, berriz, bi oriotar daude: Jesusa Miralles eta David Suarez, senar-emazteak. Zestoako San Juan egoitzan Victoria Maria dago eta Donostiako Julian Rezola izenekoan, azkenik, Juana Oteiza.

## Orioko egoera

Orion ez dago egoitzarik. Aia eta Oriokoentzat egoitza bat egiteko aukera aztertu zen baina plaza gutxikoa beharko luke eta oso garesti joko luke. Aukera hori, beraz, baztertu egin zen.

Momentuan esan dezakegu orain arte izan diren eskaerei irtenbidea eman zaicela.



*Carmen eta Santi Lertxundi, Virgilia Carabias eta Inaxi Lezeta oriotarrak Zarauzko Santa Ana egoitzan daude. Argazkian agertzen ez bada ere, han dago, baita ere, Ignacia Olasagasti*



## **EZETZ EZAGUTU! lehiaketa**

*Oraingo honetan argazkian jaten azaltzen diren sei pertsonen izenak eman behar dizkiguzue. Galdera honi ere erantzun beharko diezue. Ze lan ari da antzesten orain Iñake Irastorza? Erantzuna, elkarrizketan izango duzue.*

*Orain arte egin dugun bezala, afari bat zozketatuko dugu asmatzaileen artean. Afaria Itsas Ondo Jatetxean izango da.*

*Erantzunak apirilaren hogeirako bidali behar dizkiguzue, helbide honetara:*

**KARKARA aldizkaria** Ezetz ezagutu! lehiaketa Herriko plaza, 1 (Udaletxe atzeko karkara) Aurreko aleko irabazlea **Bego Azurmendi** izan da. Hauek ziren eman beharreko erantzunak: -Santiago Ibirriaga, Patxi Oliden, Antonino Agirre, Jose Maria Astigarraga, Antonio Iturain eta Jose Etxeberria.

*1862an destinatu zuten Aita Lertxundi Marokoko misioetara.*

# ITSAS-ONDO

Bataioak, jaunartzeak, negozio eta talde bazkariak



kaia kalea,7  
tfnoa: 13 11 79

# Orioko argazki zaharrekin liburua egin nahi dugu

KARKARA Kultur Elkarteak Udalaren laguntzaz, Orioko argazki zaharrez osatutako liburu bat argitaratu nahi du, inguruko beste zenbait herritan egin duten bezala, Zarautzen, esate baterako.

Horretarako argazkiak biltzeari ekin diogu. Dagoeneko aurkitu dugu mordoska ederra, Diputazioaren eta Kutxaren artxiboetan miatuta, gauza bera Orioko Udaletxean ere. Baina badakigu altxorrik ederrena oriotarren etxeetan dagoela gordea. Eta liburua osatzeko, zuek etxean dituzuen argazki horiek behar ditugu. Jakina, argazki horiei kopia bana atera, eta ondoren bueltatu egingo dizkizuegu. Argazkiak bezela bestelako materiala ere jasoko genuke gustora: grabatu zaharrak, pinturak, pelikula zaharrak...; beti ere gaia Orio izanda.


Prest baldin bazaudete gure asmo berri honetan laguntzeko ailegarazi izkiguzue argazki horiek, edota taldekoren bat argazki bila badijoakizue, lagunduzue.

Argazkiek lotura behar dute izan Oriorekin: herriko etxeak, kaleak, baserriak, mendiak, errioa, zubia, baserritarrak, familiak, arraunlariak, pelotariak, edozer. Argazkiekin batera informazioa ere eskertuko genizueke, noizkoa, nor den...

Muga bat jarri behar eta, 1970era bitarteko argazkiak sartzea pentsatu dugu liburu horretan. Jakina, argazki zahar-zaharrak dira interesik handiena dutenak guretzat.

Gurekin kontaktuan jarri nahi izanez gero deitu 83 15 27 telefonora astelehenetik ostiralera arratsaldeko 7etatik 8etara; edo bestela Udaletxearen atzeko aldeko atarian daukagun buzoian utzi argazkiak sobre batean jabearen datuekin, izena, telefonoa etabar.

**KARKARA TALDEA**



D. Bastos  
1991